

Irtenbideek zalantzak sortzen dituzte Fukushima

FUKUSHIMAKO zentral nuklearra lehertu zenetik hainbat bidetatik barreiatu da erradioaktibitatea. Hasieran, leherketa gertatu zenean, atmosferara gas bidez barreiatu zen, baina geroztik ura du garraibide nagusi.

Hiru urte daramatzate zentralerako bihotz nuklearrak ureztatzen, tenperatura kontrolatu nahian. Ur horren zati bat gas bihurtu eta atmosferara isurtzen ari da. Gehiena, berriz, lurrean zabaltzen da, eta inguruko zorua eta ura kutsatu ondoren itsasoratu egiten da, hori ere kutsatuz noski. Uraren zati bat biltzen badute ere, denboraz biltegiak kaltetu eta urak isurtzen segitzen du.

Nazioarteko presioari esker eta batez ere AEBen haserreari esker –isuritako ura Ozeano Barea zeharkatu eta AEBetara ailegatzeko ari baita–, interesgarriak izan daitezkeen hainbat neurri teknologiko hartzen ari da TEPCO, Fukushimaren enpresa kudeatzailea. Horietako bat zentralaren inguruan izotz geruza bat sortzea da. Ekainaren lehen astean hasiko dira

KYODO / THE JAPAN TIMES



Sistema experimental honen bidez, hormak izotzuta dauzkaten hamar metro koadroko zoru zatiak jarriko dituzte.

izotz geruza eraikitzen, eta 2015eko martxoan amaituta behar luke. 1,5 kilometroko luzera izango du, eta eraikitzeko 30na metroko luzera duten 1.550 hodi lurperatuko dituzte. Horien inguruan diametro txikiagoko tutu-sare bat ezarriko da, likido hoztaileak zirkulatzeko.

Horrela, lur eremu zabal bat izoztea eta horri esker eremu horretako ura bertan harrapatuta geratzea espero da. Itxuraz ez da ideia txarra, baina gero eta zientzialari gehiagoren arabera, harrapatutako urak lurraren trinkotasuna ahulduko du eta ondorioz gune nuklearreko egituren zutabeak kaltetu egingo dira. Arazo bat kontrolatzeko larriago bat sortuko ote dute? ■



2 motako diabetesa izateko arriskua neurtu daiteke test baten bidez

Europako populazioaren %5ek baino gehiagok 2 motako diabetesa du, edo garatzeko arrisku handia du. Frantziako Estatuan lau milioi lagunetik gora dago ataka horretan, eta Espainiakokan hiru milioi baino gehiago. Ondoko loturako test errazaren bidez, gaitz hori izateko duzun arriskua neurtu dezakezu.

ttiki.com/66430
(Frantsesez)

Izpi ultramoreetatik babesten gaituen mekanismoa, argituta

Jakina da melaninak gure larruzala, begiak eta ilea babesten dituela eguzkitik heltzen zaizkigun izpi ultramoreetatik. Hala ere, berriki arte ez da jakin melaninaren zer ezaugarri ematen duen babes hori. Massachusettseko Teknologia Institutuko ikerlariek egin dute aurkikuntza.

ttiki.com/66431
(Euskaraz)

Eguzkiak Lurrean eragiten duen korrante elektrikoaren azterketa

Eguzkian gertatzen diren leherketen eragina bizpahiru egun ondoren nabaritzen dugu Lurrean. Lurreko geomagnetismoak gorabeherak izaten ditu eta horien ondorioz lurrazaleko azpiegitura handietan, trenbideetan, elektrizitate-sareetan... korrante elektrikoak sortzen dira. Batzuetan oso handiak izan daitezke.

ttiki.com/66432
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16